



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak**

# **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoak 7**

**Vitoria-Gasteiz, 7 de marzo de 2023**

## Eusko Jaurlaritza

### **GOBERNU KONTSEILUAREN ADIERAZPENA MARTXOAK 8 EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA**

Bihar, Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna, errebindikaziorako eguna da; izan ere, aurrerapenak izan diren arren, mundu mailan oraindik ematen den egiturazko berdintasun eza iraunkorrek eragin negatiboa izaten jarraitzen du emakumeen bizi-baldintzetan.

Eusko Jaurlaritzarentzat lehentasuna da emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerantz aurrera egiten jarraitzea. Gaur berdintasunaren sustapenarekin dugun konpromisoa berretsi nahi dugu, ez bakarrik zeharka Jaurlaritzaren barruan, baita gure herriko gainerako erakunde eta gizarte-eragileekin elkarlanean arituz ere.

Elkarlanerako nahi honen ondorioz, Martxoaren 8an, bat egin dugu Eusko Jaurlaritzak, aldundiek eta udalek, Berdintasun Sailak eta Emakundek koordinatuta, Emakumeak Gora! kanpainarekin, elkarrekin gizarteari mezu bat helarazteko: emakume gehiago erabaki- eta lidergo-postuetan egotea ahalbidetuko dituzten baldintzak sortu behar ditugu.

Badakigu emakumeek bidean aurkitzen dituzten oztopoek ez dutela zerikusirik prestakuntza edo lidergo faltarekin; baizik eta txikitatik ikasten ditugun genero-rol eta estereotipoen eraginarekin, hauek gure ibilbide profesional eta bizi-ibilbide osoa baldintzatzen baitute.

Emakumeak behar bezala prestatuta daude: Euskadin goi-mailako ikasketak dituzten pertsona guztien ia % 60a emakumeak dira. Beraz, emakumeek duten ahalmen guztia berdintasunean garatu ahal izatea behar dugu. Justizia sozialagatik behar dugu, baina baita gizarte hobe bat eraikitzeko, horrela ikuspegi anitzagoa, aberatsagoa eta osoagoa izango baitugu, gizartea osatzen duten persona guztiak ordezkatzeko dituen.

Martxoaren 8an, halaber, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen lehen urteurrena ospatzen dugu. Lege horrek aukera emango digu berdintasun-egoera berri baterantz aurrera egiten jarraitzeko, arlo honetan aurreratuen dauden herrialdeen mailan. Eta berdintasunerako legeekin eta politika publikoekin batera, gizarte osoaren ekarpena ere behar dugu. Beraz, herritar guztiak animatzen ditugu egunero adieraz dezaten modu publiko eta aktiboan berdintasunarekiko konpromisoa, eta bereziki egin dezatela bihar, martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Egunean.

Emakumeak Gora!

## Segurtasuna

### SEGURTASUN SAILAREN 2023RAKO DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTU DA

- **Politika publikoak planifikatzeko dokumentuan elkarrekin, erakundeek edo organismoek Segurtasun Sailetik jasoko dituzten dirulaguntza guztiak daude jasota**
- **Horien artean, nabarmentzekoak dira jokoarekiko adikzioei aurrea hartzeko eta herritarrek larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman parte hartzea sustatzeko programak, edota gorroto-delituei aurre egiteko UPV/EHurekin batera egiten den lana**

Gobernu Kontseiluak Segurtasun Sailaren Dirulaguntzen 2023ko Plan Estrategikoa onartu du. Testua webgunean argitaratuko da jendeak kontsultatu ahal izateko, eta argi eta garbi azalduko dira aurten elkarrekin, erakundeek edo organismoek jasoko dituzten dirulaguntza guztiak.

Planak **sei ardatz estrategiko** ditu:

1. **Herritarrek larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman borondatez parte hartzea sustatzea eta bultzatzea.** Eusko Jaurlaritzaren helburua da euskal sare horretan sartzea larrialdi-egoeretan pertsonen laguntza ematen edo ondasunak hornitzen lankidetzan aritzen diren erakunde guztiak:
  - ✓ Gurutze Gorria, 471.600 €
  - ✓ DYA, 155.000 €
  - ✓ Euskadiko Laguntza Txakurren Taldea, 36.000 €
  - ✓ Euskal Espeleologoaren Elkargoa, 15.000 €
  - ✓ Mendiko Euskal Federazioa, 25.000 €
  - ✓ EuskalEguraldia, 3.000 €
2. **Informazio ozeano-meteorologikoa lortzeko ikerketa,** itsasertzeko itsas inguruneko plataformen bidez. Laguntza-lerro honi esker, Eusko Jaurlaritzak portuetan kokatuta dauden plataformetako, ur sakonetako buietako, kostaldeko radar-sareko eta kostaldeko bideometria-sistemako informazioa biltzen du. Horren bidez, itsasoaren eta itsasertzaren portaerari buruzko aurreikuspenak, arriskuei buruzko iragarpenak egin ditzake, etab.
  - ✓ AZTI Fundazioa, 195.000 €
3. **Mugikortasun segurua eta iraunkorra sustatzea.** Eusko Jaurlaritzaren helburua da sentsibilizazio-kanpainak abiaraztea zirkulazio-istripuak prebenitzeko, bai ikastetxeetan, bai bide-arriskuko beste kolektibo batzuetan.
  - ✓ AESLEME, Mugikortasun segururako hezkuntzaren elkarrekin, 45.000 €
  - ✓ Baketik Fundazioa, 45.000 €

4. **Joko-adikzioen ondorio diren arriskuen prebentzioa.** Eusko Jaurlaritzak ludopatiari aurrea hartzeko, jokoarekin lotutako arriskuak murrizteko eta prebentzio-proiektuak lantzeko lanean ari diren erakundeen laguntza du.
  - ✓ Ludopatiari buruzko informazio- eta prebentzio-jarduerak abian jartzeko irabazi-asmorik gabeko Euskadiko elkarte pribatuen proiektuei laguntzeko deialdia, 100.000 €
  - ✓ UPV/EHU, Jokoaren Euskal Behatokiaren ikerketa-programa finantzatzeko, 100.000 €
  
5. **Ertzaintzako langileek polizien eta suhiltzaileen jokoetan parte har dezaten sustatzea eta bultzatzea.** Eusko Jaurlaritzaren helburua da kirol-esperientziak partekatzea, poliziako eta larrialdietako kidegoen arteko laguntasuna sustatzea eta, batez ere, forma fisiko onari eustea Ertzaintza barruan.
  - ✓ Kirol-lehiaketetan parte hartzen duten Ertzaintzako kirolarientzako laguntzak, 20.000 €
  
6. **Kriminologia ikerketa eta ikasketa sustatzea.** Dirulaguntza publikoen ardatz honen bidez, Eusko Jaurlaritzaren helburua da Euskadiko kriminalitatea hobeto ezagutzea eta aurrea hartzea eta desagerraraztea. Gainera, arreta berezia eskainiko zaie gorroto-delituei, berdintasun, tolerantzia eta elkarbizitzarekiko begirunea hedatzeko eta ezartzeko.
  - ✓ UPV/EHU, Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO katedra, 30.000 €.
  - ✓ UPV/EHU, Instituto Vasco de Criminología / Kriminologiaren Euskal Institutua (IVAC-KREI), 125.000 €.

## Ekonomia eta Ogasuna

### **EUSTATEK KONTZEPTU-PROBA BAT EGINGO DU URRETXUKO UDALEAN, DATU ESTADISTIKOEKIN TOKIKO GOBERNUAREN KUDEAKETAN ETA ERABAKIAK HARTZEN LAGUNTZEKO**

Eustat – Euskal Estatistika Erakundeak kontzeptu-proba bat egingo du Urretxuko Udalean, tokiko gobernuaren kudeaketan eta erabakiak hartzen laguntzeko, datu estatistikoekin, Udalaren beraren barne-datuekin konbinatuta. Horrela, eskura dauden baliabideak optimizatu eta herritarren behar eta eskaerei erantzun nahi zaie, udalerrri horretarako informazio pertsonalizatua oinarri hartuta.

Horretarako, Gobernu Kontseiluak, astearte honetako bileran, bere baimenarekin, lankidetzaz hitzarmena formalizatu du Eustaten eta Urretxuko Udalaren artean. Aginte-koadro estrategikoak landuko dira bistaratzeko tresnak erabiliz, hala nola PowerBI edo Tableau.

Ekimen hau datu eta ebidentzietan oinarritutako kudeaketaren komenigarritasunetik abiatzen da. Politika eta zerbitzu publikoak planifikatzeko eta ebaluatzeko oinarritzko eskakizuna da hori, beharrezkoa kontuak emateko eta gardentasunerako (publizitate aktiboa eta informazioa eskuratzeko eskubidea). Azken horrek herritarren parte-hartzea eta lankidetzaz sustatzen du erabakiak hartzeko prozesuetan.

Erronka orokorra da egoeren analisisian eta datuetan oinarritutako erabakiak hartzean oinarritutako kudeaketa-eredu bat izango duen administrazio baterantz eboluzionatzea. Hala, herritarrei zerbitzu pertsonalizatuak modu proaktiboan emateko, datu-emari egokia behar da.

Datuetan oinarritutako kudeaketak udal-gobernuztat lehentasun bat izan behar du. Horretarako, Eustatek datu kopuru handia du eta hori Urretxuko Udalaren eskura jarri nahi du, bi helburu hauekin: datu horiek haren web-orriaren bidez berriz zabaltzea eta aginte-taula estrategikoak eta kudeaketakoak lantzeko erabiltzea.

## Ekonomia eta Ogasuna

### **EUSKO JAURLARITZAK EROSKETA ETA KONTRATAZIO BERDEAREN HIRUGARREN PROGRAMA EZARRI DU EUSKADIN, GARAPEN SOZIOEKONOMIKO JASANGARRIA BULTZATZEKO**

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, onartu egin du 2030erako Erosketa eta Kontratazio Berdearen hirugarren Programaren ezarpena ziurtatzeko ingurumen-klausulak txertatzeari buruzko jarraibidea. Programa hori Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eta Ihobe sozietate publikoak prestatua da.

Gobernu Kontseiluak 2021eko abenduaren 7an onartutako programa honen helburua da EAEko sektore publikoaren eta pribatuaren erosketa-potenziala modu bikainean eta merkatuarekin koordinatuta erabiltzea, garapen sozioekonomiko jasangarria lortzeko eta, aldi berean, Euskadiko ingurumenaren, enpresa-lehiakortasunaren eta pertsonen ongizatearen babesa maximizatzeko.

Ildo horretatik, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren Legearen artikuluek ezartzen dute erosketa eta kontratazio publiko berdearen helburua merkatuarekiko koordinazioa optimizatzea izango dela, merkatuak ekoberrikuntza txertatzen duela bermatzeko eta, era berean, administrazio publikoek baliabideak modu eraginkorragoan erabil ditzaten errazteko.

Hirugarren programa horrek, beraz, 2008an arlo horretan hasitako lanari jarraipena ematen dio. Orduan, EAEko Administrazioaren eta bere sektore publikoaren kontratazioan gizarte- eta ingurumen-irizpideak eta beste politika publiko batzuk txertatu zituen Eusko Jaurlaritzak. 2011n onartu zen horrelako lehen programa (2011-2014), eta, horren ondoren, bigarren entrega bat egin zen (2015-2020). Horiek erraztu egin zuten Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio osoan erosketa publiko berdea hedatzeko agertokia.

## Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

### **BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAK 34 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU FAMILIA ETA LANA BATERAGARRI EGITEA SUSTATZERA**

- **28,75 milioi euro inguru banatuko zaizkie seme-alabak zaintzeko lan-eszedentziako egoeran dauden edo lanaldi-murrizketa hartu duten langileei**
- **Bestalde, 4 milioi euroko dotazio bat izango da 14 urtez azpiko seme-alabak zaintzeko langileen kontratazioa suspertzeko**

Nerea Melgosa Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak guztira 34,35 milioi euroko gastua baimendu du familia eta lana bateragarri egiteko Sailak sustatzen dituen programei erantzuteko.

Programa horiek seme-alabak zaintzeko lan-eszedentziako egoeran dauden edo lanaldi-murrizketa hartu duten langileentzako laguntzak aurreikusten dituzte, 2019an ezkontide ez-haurdunentzako abian jarritako aitatasun/amatasun laguntzak barne direla. Programek mendekotasun-egoeran dauden edo osasun-egoera larrian dauden senideak zaintzeko lan-eszedentziako egoeran edo lanaldi-murrizketa hartu duten pertsonentzako dirulaguntzak ere jasotzen ditu, bai eta seme-alaba adingabeak zaintzeko langileak kontratatzeke laguntzak ere.

Hiru urtez azpiko seme-alabak zaintzeko lan-eszedentzian dauden langileen eta 12 urtez azpiko seme-alabak zaintzeko lanaldia murriztu duten langileen beharrei erantzuteko, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak 28,75 milioi euroko hasierako kontu-saila gaitu du.

Helburu horrekin berarekin, Sailak 1,39 milioi euro bideratuko ditu mendekotasun-egoeran edota osasun-egoera larrian dauden senideak zaintzeko lan-eszedentzian dauden edo lanaldia murriztu duten langileentzat.

Azkenik, 210.000 euroko kontu-saila gaitu da 2022ko ekitalditik egin gabe dauden ordainketa batzuei aurre egiteko, hain zuzen ere, 0 urtetik 3 urtera bitarteko haurrak zaintzeko langileak kontratatzeke programari dagozkionak.

#### **Zaintzaileak kontratatzea**

Kontziliazioaren esparruan, Gobernu Kontseiluak 4 milioi euroko kontu-saila onartu du 14 urtez azpiko seme-alabak zaintzeko langileen kontratazioa sustatzeko.

2023an laguntza horiek eskuratu ahal izango dituzte besteren kontura lan egiten duten langileek, langile autonomoek eta kooperatiba-sozietateetako bazkide langileek eta lan-bazkideek.

Laguntza horien hartzaileak izan daitezke, era berean, familia-unitateko gurasoak, betiere seme edo alaba adingabea zaintzeko kontratatutako etxeko langilearen Gizarte Segurantzako kotizazio-dokumentuan etxeko unitatearen titular gisa azaltzen bada.

0 urtetik 14 urtera bitarteko seme-alabak zaintzeko pertsonak kontratatzeko laguntza kontziliazio erantzunkideari laguntzeko neurri bat da, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legean jasota dagoenaren arabera. Horien bidez lortu nahi da aurrera egitea gizonak eta emakumeek etxeko zereginen eta zainketa-lanen banaketa ekitatibo eta paritarioan, euren lanak eta karrera profesionalak garatzen jarraitu ahal izan dezaten.



## Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

### **BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILAK 900.000 EURO BIDERATUKO DITU BIZIKIDETZA ETA GIZA ESKUBIDEEN ERRESPECTUA SUSTATUKO DUTEN PROIEKTUETARAKO**

- **Laguntzak irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuei eta biktimen elkarteei zuzenduta daude**

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak 900.000 euroekin finantzatuko ditu 2023an irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuek bizikidetzaren eta giza eskubideen inguruan egiten dituzten proiektuak.

Gobernu Kontseiluak gaur eman dio oniritzia laguntza-deialdiari. Laguntza horien helburua gure gizartean bizikidetzaren, giza eskubideekiko errespetua, enpatia eta elkartasuna sustatzea da.

Horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko irabazi asmorik gabeko pertsona juridiko pribatuek eta EAEn gertatutako ekintza terroristen biktimak kide dituzten biktimen elkarteek honako jarduera-eremu hauekin zerikusia duten proiektuak aurkeztu ahal izango dituzte:

a) Bizikidetzaren eta giza eskubideak:

1.- Giza duintasunarekiko, giza eskubideekiko eta bizikidetzaren kontziliatuarekiko konpromisoa sustatzea helburu duten parte-hartzeko, zabalkunderako edo gizarte-hezkuntzako jarduketak.

2.- Gizartean edonolako indarkeriari, terrorismoari edo giza eskubideen urraketeri lotutako kontzientzia kritikoa eta deslegitimatzailea sustatzeko ekimenak.

3.- Iraganeko gertatutako edonolako indarkeria-motaren inguruan, hausnarketa kritikoko eta gizarteratzeko prozesuetan lagundu ahal izateko programak, Europako justizia leheneratzailearen joerarekin bat.

4.- Gizarte-partaidetzako esperientziak eta bizikidetzaren normalizatuaren erronken gaineko elkarrizketa desberdinen artean, aniztasuna eta gizarte-topaketa sustatzeko.

b) Biktimak eta gizarteak:

1.- Terrorismoaren biktimei laguntza emateko ekintzak.

2.- Politikagatiko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketeri biktima direnei laguntza emateko jarduketak.

3.- Biktimen eta gizartearen arteko lotura sustatzen duten programak, bai eta biktimek bizikidetzaren eraikuntzari aurrerapenen eta bilakaeren parte-hartzaile diren aldetik egiten dioten ekarpena sustatzen dutenak ere.

c) Aniztasuna eta elkartasuna:

1.- Aniztasunaren kudeaketa positiboaren, arrazismoaren, xenofobiaren edo gorroto-delituen prebentzioaren balioak sustatzen dituzten proiektuak.

2.- Elkartasunaren eta gizarte-inplikazioaren balioak sustatzen dituzten esperientziak, desberdintasuneko, diskriminazioko, bidegabekeriako, bazterketako edo marjinazioko modu kritikoenen aurrean.

3.- Elkartasuneko, inplikazioko eta gizarte-mugikortasuneko ekintzak, indarkeriarako, gerrarako eta nazioarteko terrorismorako adierazpen berrien aurrean.

Erakunde onuradun bakoitzak proiektu bakoitzeko 25.000 euro jaso ahal izango ditu gehienez.

## Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

### **GOBERNU KONTSEILUAK EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALEKO ERAKUNDEEN ERROLDA SORTZEN DUEN DEKRETUA ONARTU DU**

Nerea Melgosa Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak eskatuta, Gobernu Kontseiluak gaur eman dio oniritzia Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen errola sortzen duen dekretuari.

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak ezartzen duenez, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen errola publiko bat sortu eta eguneratu behar du, eta beharrezkoa izango da errola horretan inskribatzea euskal administrazio publikoekin lankidetzan aritzeko eta haiek bultzatzen dituzten sustapen-neurriak eskuratzeko, diruz lagundu daitezkeen programak barne direla.

Dekretu berri honek, errola hori sortzeaz gainera, haren funtzionamendua arautzen du, eta, bereziki, inskribatzeko, eguneratzeko eta ezeztatzeko prozedurak ezartzen ditu. Era berean, ezartzen da errola hori Boluntariotzako Erakundeen Erroldarekin koordinatuko dela. Zehazki, koordinazio horren esparruan, ezartzen da Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen erroldan inskribatuta geratzen diren erakundeak boluntariotzako erakundeen erroldan ere inskribatuta geratuko direla, beste izapiderik egin beharrik izan gabe.

Errola Euskadiko hirugarren sektore soziala ezagutzeko, jakitera emateko, aztertzeko, planifikatzeko, antolatzeko eta sustatzeko tresna baliagarria izango da. Bestalde, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeen erroldaren eta Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokiaren arteko lankidetzaren aurreikusten da, errealitate sozialaren berri izateko, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoan dauden hirugarren sektore sozialeko erakundeen kopurua eta osaera ezagutzeko.

Izena emateko izapidea bide elektronikotik bakarrik egin ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan: <https://www.euskadi.eus/servicios/10578>.

### **Sei hilabeteko epea**

Dekretuan ezartzen da erroldan inskribatuta egotea eskatuko dela euskal administrazio publikoek egiten dituzten dirulaguntzen deialdietan, dekretu hau indarrean jarri eta hurrengo sei hilabeteetatik aurrera.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### GOBERNU KONTSEILUAK GURE ARTEA SARIEN 2023KO DEIALDIA ONARTU DU

Arte plastikoa eta ikusizkoak sustatzeko helburuz ematen dira urtero Gure Artea sariak eta artistek euskal arte garaikideari eta euskal kulturari egiten dioten ekarpenaren aitortpena dira. Batetik sortzaileak saritzen dira, bai beren ibilbide profesionalagatik bai azken urteetan egindako jarduera sortzailearengatik, eta bestetik, beste agente batzuk ere saritzen dira arte plastiko eta ikusizkoen arloan izandako jarduera orokor edo zehatzarengatik. Gure Artea sariak hiru modalitatetan banatzen dira:

- **Ibilbide artistikoa aitortzeko saria:** lan eta ibilbide osoa aintzat hartuta, egindako lan sortzaileagatik eta kulturari eta arte garaikideei egindako ekarpenagatik nabarmendu den artista aitortzen du eta saridunak 20.000 euro jasoko ditu.
- **Sorkuntza-lana aitortzeko saria:** azken urteak aintzat hartuta, bere jarduera artistikoagatik eta sortzaileagatik eta sorkuntza garaikideari egindako ekarpenagatik nabarmendu den artista edo artista-taldea aitortzeko saria da eta aitortpena jasoko duen artistak 20.000 euro jasoko ditu, aurreko edizioetan baino 2.000 euro gehiago.
- **Arte plastiko eta ikusizko arloan agenteek egindako lana aitortzeko saria:** Euskal Autonomia Erkidegoko arte plastiko eta ikusizkoen arloan egindako ekarpenagatik, alegia, kulturaren balio-katearen faseetan (ikerketa, prestakuntza, sorkuntza-ekoizpena, sustapena-hedapena eta banaketa) horiek sustatzeko jarduerak garatuz egindako lanagatik, nabarmendu diren pertsonak aitortzeko saria. Aintzakotzat hartu ahal izango da ibilbide osoa edo, bestela, azken urteotan egindako programa edo proiektu zehatzak. Saria jasotzen duen pertsonak 20.000 euro jasoko ditu, aurreko edizioetan baino 2.000 euro gehiago.

Sarien epaimahaiak aurkeztu beharko ditu modalitate bakoitzeko sariak jasotzeko hautagaiak. 2023ko Gure Artea Sarien epaimahaia Aimar Arriola Olabarriak, Iñaki Imaz Urruticoecheak, Miren Vadillo Eguinok, Nora Aurrekoetxea Etxebarriak eta Rakel Espaza Sanz-ek osotuko dute. Epaimahai horrek erabakiko du norentzat izango diren 2023ko Gure Artea sariak. Sari-emate ekitaldia udazkenean egingo da.

## Gobierno Vasco

### **DECLARACIÓN DEL CONSEJO DE GOBIERNO CON MOTIVO DEL 8 DE MARZO, DÍA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES**

Mañana, 8 de Marzo, “Día Internacional de las Mujeres”, es una jornada para la reivindicación, porque, a pesar de los avances, la desigualdad estructural persistente aún en todo el mundo sigue repercutiendo negativamente en las condiciones de vida de las mujeres.

Para el Gobierno Vasco seguir avanzando hacia la igualdad real de mujeres y hombres es una prioridad y hoy queremos ratificar nuestro compromiso con el impulso de la igualdad, no solo de manera transversal en el seno del ejecutivo, sino también a través de la colaboración y el trabajo en equipo con el resto de instituciones y agentes sociales del país.

Fruto de este espíritu colaborativo, este 8 de Marzo Gobierno, diputaciones y ayuntamientos, coordinados por el departamento de Igualdad y Emakunde, nos hemos unido en la campaña “Emakumeak Gora!” para lanzar conjuntamente un mensaje a la sociedad: Necesitamos crear las condiciones que permitan que más mujeres ocupen puestos de decisión y liderazgo.

Sabemos que los obstáculos que se encuentran en su camino no tienen que ver con la falta de preparación o liderazgo, sino con múltiples factores relacionados con los roles y estereotipos de género que se nos asignan desde la infancia y persisten durante todo nuestro recorrido profesional y vital.

Las mujeres están suficientemente preparadas, no en vano, representan casi el 60% del total de personas con estudios superiores en Euskadi. Necesitamos, pues, que puedan desarrollar todo su potencial en igualdad. Lo necesitamos por justicia social, pero también para construir una mejor sociedad, desde una mirada diversa, más rica, más completa, y representativa de todas las personas que la componen.

Este 8 de marzo celebramos también el primer aniversario de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista, una Ley que nos permitirá seguir avanzando hacia un nuevo escenario de igualdad al nivel de los países más avanzados en esta materia.

Y junto a las leyes y las políticas públicas de igualdad, necesitamos también la aportación de toda la sociedad. Animamos, por tanto, a toda la ciudadanía a que exprese su compromiso con la igualdad todos los días, de manera pública y activa, y que lo haga especialmente mañana, 8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres.

Emakumeak Gora!

## Seguridad

### APROBADO EL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES DEL DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD PARA 2023

- Es un documento de planificación de políticas públicas que recoge la totalidad de las subvenciones que las asociaciones, entidades u organismos recibirán por parte del Departamento de Seguridad
- Entre ellas, destacan los programas para prevenir las adicciones al juego, promocionar la participación de la sociedad en el Sistema Vasco de Atención de Emergencia, o el trabajo junto a la UPV/EHU para luchar contra los delitos de odio

El Consejo de Gobierno ha aprobado el “Plan Estratégico de Subvenciones 2023” del Departamento de Seguridad, un texto que se publicará en la página web para su consulta pública y con total transparencia de todas las subvenciones que recibirán, este año, las asociaciones, entidades u organismos.

El plan tiene **seis ejes estratégicos**:

1. **Fomento y promoción de la participación voluntaria de la ciudadanía en el Sistema Vasco de Atención de Emergencias.** El objetivo del Gobierno Vasco es incluir en esta red vasca a todas las entidades colaboradoras que trabajan para atender a las personas o procurar bienes en situaciones de emergencias:
  - ✓ Cruz Roja, 471.600 €
  - ✓ DYA, 155.000 €.
  - ✓ Grupo del Perro de Salvamento de Euskadi, 36.000€
  - ✓ Unión de Espeleología Vasca, 15.000€
  - ✓ Federación Vasca de Montaña, 25.000€
  - ✓ EuskalEguraldia, 3.000€
2. **Investigación destinada a obtener información oceánico-metereológica** a través de las plataformas ubicadas en el medio marino litoral. Gracias a esta línea de ayudas, el Gobierno Vasco capta la información de las plataformas situadas en los puertos, las boyas de aguas profundas, la red de radares costeros y los sistemas de videometría costera. Con ella, puede realizar previsiones de comportamiento del mar, costa, predecir riesgos, etc.
  - ✓ Fundación AZTI, 195.000€.
3. **Fomento de la movilidad segura y sostenible.** El objetivo del Gobierno Vasco es poner en marcha campañas de sensibilización para

prevenir los accidentes de tráfico, tanto en centros educativos como en otros colectivos de riesgo vial.

- ✓ AESLEME, Asociación sobre educación para la movilidad segura, 45.000€
- ✓ Fundación Baketik, 45.000€

4. **Prevención de los riesgos derivados de las adicciones al juego.** El Gobierno Vasco cuenta con las entidades que trabajan para prevenir la ludopatía, reducir los riesgos del juego y elaborar proyectos de prevención:

- ✓ Convocatoria de ayudas a proyectos de asociaciones vascas privadas sin ánimo de lucro para poner en marcha actividades de información y prevención de la ludopatía, 100.000€
- ✓ UPV/EHU para financiar el programa de investigación del Observatorio Vasco del Juego, 100.000€

5. **Fomento y promoción de la participación deportiva del personal de la Ertzaintza en juegos deportivos de policía, bomberos y bomberas.** El objetivo del Gobierno Vasco es facilitar el intercambio de experiencias deportivas, estimular la camaradería entre los diversos cuerpos de policía y emergencias y, sobre todo, motivar el mantenimiento de una buena forma física dentro de la Ertzaintza.

- ✓ Ayudas a las y los deportistas de la Ertzaintza que participen en campeonatos y juegos deportivos, 20.000€

6. **Fomento del estudio y de la investigación criminológica.** Con este eje de subvenciones públicas, el Gobierno Vasco quiere mejorar el conocimiento, la prevención y la erradicación de la criminalidad en Euskadi. Además, se prestará atención especial a los delitos de odio para difundir e implantar valores de igualdad, tolerancia y respeto a la convivencia.

- ✓ UPV/EHU, Cátedra UNESCO de Derechos Humanos y Poderes Públicos, 30.000€.
- ✓ UPV/EHU, Instituto Vasco de Criminología / Kriminologiaren Euskal Institutua (IVAC-KREI), 125.000€

## Economía y Hacienda

### **EUSTAT REALIZARÁ UNA PRUEBA DE CONCEPTO EN EL AYUNTAMIENTO DE URRETXU PARA AYUDAR EN LA GESTIÓN Y TOMA DE DECISIONES DEL GOBIERNO LOCAL CON DATOS ESTADÍSTICOS**

El Instituto Vasco de Estadística-Eustat llevará a cabo en el Ayuntamiento de Urretxu una prueba de concepto con el objetivo de ayudar en la gestión y toma de decisiones del gobierno local con datos estadísticos, combinados con datos internos del propio Ayuntamiento. Se busca así optimizar los recursos disponibles y responder a las necesidades y demandas de la ciudadanía en base a una información personalizada para este municipio.

Para ello, el Consejo de Gobierno de este martes ha formalizado, con su autorización, un convenio de colaboración entre Eustat y el Ayuntamiento de Urretxu. Se elaborarán cuadros de mando estratégicos utilizando herramientas de visualización como puedan ser PowerBI o Tableau.

Una iniciativa que parte de la conveniencia de una gestión basada en datos y en evidencias. Requisito básico para la planificación y la evaluación de las políticas y servicios públicos, necesaria a su vez para la rendición de cuentas y la transparencia (publicidad activa y derecho de acceso a la información). Esta última potencia la participación y colaboración de la ciudadanía en los procesos de toma de decisiones.

El reto global es evolucionar hacia una administración con un modelo de gestión soportado en el análisis de situaciones y toma de decisiones basadas en datos y, para prestar de forma proactiva servicios personalizados a la ciudadanía, se necesita de un buen caudal de datos.

La gestión basada en datos debe ser una prioridad de los gobiernos municipales y, para ello, Eustat dispone de una gran cantidad que quiere poner a disposición del Ayuntamiento de Urretxu, con dos finalidades: la redifusión de dichos datos a través de su página web y su utilización para la elaboración de cuadros de mando estratégicos y de gestión.



## Economía y Hacienda

### **EL GOBIERNO VASCO IMPLANTA EL TERCER PROGRAMA DE COMPRA Y CONTRATACIÓN VERDE EN EUSKADI PARA PROPICIAR UN DESARROLLO SOCIOECONÓMICO SOSTENIBLE**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy la instrucción sobre la incorporación de cláusulas ambientales para asegurar la implantación del tercer Programa de Compra y Contratación Verde de Euskadi 2030, elaborado por la Junta Asesora de Contratación Pública y la Sociedad Pública Ihobe.

Este Programa, aprobado por el Consejo de Gobierno el 7 de diciembre de 2021, tiene como objetivo utilizar el potencial de compra del sector público y privado vascos de forma excelente y coordinada con el mercado para un desarrollo socioeconómico sostenible que maximice, a la vez, la protección del medio ambiente, la competitividad empresarial y el bienestar de las personas en Euskadi.

En este sentido, articulado de la Ley de la Administración Ambiental de Euskadi establece que la compra y contratación pública verde tendrá como finalidad optimizar la coordinación con el mercado para garantizar que aquella incorpore la ecoinnovación y facilitar, a su vez, que las administraciones públicas hagan un uso más eficiente de los recursos.

Este tercer programa pone así un punto y seguido al trabajo iniciado en este ámbito en 2008, cuando el Gobierno Vasco incorporó criterios sociales, ambientales y otras políticas públicas en la contratación de la Administración de la CAE y de su sector público. En 2011 se aprobó el primer programa de estas características (2011-2014), al que siguió una segunda entrega (2015-2020), que facilitaron el escenario para el despliegue de la compra pública verde en el conjunto de la Administración de la Comunidad Autónoma.

## Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

### **EL DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLITICAS SOCIALES DESTINARÁ 34 MILLONES DE EUROS A PROMOVER LA CONCILIACION DE LA VIDA FAMILIAR Y LABORAL**

- **Alrededor de 28,75 millones de euros beneficiarán a personas trabajadoras en situación de excedencia o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de hijos e hijas**
- **Por otra parte, se prueba una dotación de 4 millones de euros para estimular la contratación de personas trabajadoras para el cuidado de hijas e hijos menores de 14 años**

A propuesta de consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, Nerea Melgosa, el Consejo de Gobierno ha autorizado un gasto total de 34,35 millones de euros para atender los programas de actuación del Departamento que promueven la conciliación de la vida familiar y laboral.

Estos programas contemplan líneas de ayudas para personas trabajadora en situación de excedencia o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de hijos e hijas, incluyendo las ayudas de paternidad/maternidad para cónyuges no gestantes puestas en marcha en 2019. También se incluyen subvenciones para personas en excedencia o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de familiares en situación de dependencia o extrema gravedad sanitaria, así como ayudas para la contratación de personal para el cuidado de hijos e hijas menores de edad.

Para cubrir las necesidades de las personas trabajadoras en situación de excedencia laboral por cuidado de menores de 3 años o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de menores de 12 años, el Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales Gobierno ha habilitado una primera partida de 28,75 millones de euros.

Con el mismo objetivo, el Departamento destinará 1,39 millones de euros a las personas trabajadoras que se encuentran en situación de excedencia o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de familiares en situación de dependencia o extrema gravedad sanitaria.

Finalmente, se ha habilitado una partida de 210.000 euros para afrontar una serie de pagos pendientes del ejercicio 2022 correspondientes al programa de contratación de personas cuidadoras de niños y niñas de 0 a 3 años.

#### **Contratación personas cuidadoras**

Igualmente, en el ámbito de la conciliación, el Consejo de Gobierno ha aprobado una partida de 4 millones de euros para estimular la contratación de personas trabajadoras para el cuidado de hijas e hijos menores de 14 años.

En 2023 podrán acceder a estas ayudas, las personas trabajadoras por cuenta ajena, así como las personas autónomas, socias trabajadoras o socias de trabajo de las sociedades cooperativas.

También podrán ser acreedoras de estas ayudas, los padres o las madres integrantes de la unidad familiar que figuren como titulares del hogar familiar en el documento de cotización a la Seguridad Social de las personas empleadas del hogar contratadas para el cuidado de hijos e hijas.

Las ayudas a la contratación de personas cuidadoras de hijas e hijos de 0 a 14 años es una medida de apoyo a la conciliación corresponsable, tal y como se define en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombre y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres. Buscan avanzar en el reparto equitativo y paritario de las tareas domésticas y de cuidados entre hombres y mujeres, permitiendo que puedan seguir desarrollando sus trabajos y carreras profesionales.

## Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

### **EL DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES APOYARÁ CON 900.000 EUROS LOS PROYECTOS QUE PROMOCIONEN LA CONVIVENCIA Y EL RESPETO DE LOS DERECHOS HUMANOS**

- **Las ayudas se dirigen a las entidades privadas sin ánimo de lucro y a las asociaciones de víctimas**

El Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales financiará con 900.000 euros la realización de proyectos sobre convivencia y derechos humanos de las entidades privadas sin ánimo de lucro en 2023.

El Consejo de Gobierno ha dado hoy luz verde a esta convocatoria de ayudas, que tiene como objetivo promocionar la convivencia, el respeto de los derechos humanos, la empatía y la solidaridad en nuestra sociedad.

Para ello, las personas jurídicas de carácter privado y sin ánimo de lucro de la Comunidad Autónoma de Euskadi, así como las asociaciones de víctimas que tengan entre sus personas asociadas a víctimas de acciones terroristas ocurridas en la CAE, podrán presentar proyectos relacionados con los siguientes ámbitos de actuación:

a) En materia de convivencia y derechos humanos:

1.– Actuaciones de participación, divulgación o educación social dirigidas a promover el compromiso con la dignidad humana, los derechos humanos y una convivencia conciliada.

2.– Iniciativas orientadas a fomentar en la sociedad una conciencia crítica y deslegitimadora en relación con toda forma de violencia, terrorismo o vulneración de derechos humanos.

3.– Programas que, en relación con toda forma de violencia ocurrida en el pasado, permitan apoyar procesos de reflexión crítica y de reinserción social en línea con la corriente europea de justicia restaurativa.

4.– Experiencias de participación social y diálogo entre diferentes sobre los retos de una convivencia normalizada que promuevan el pluralismo y el encuentro social.

b) En materia de víctimas y sociedad:

1.– Acciones de apoyo a las víctimas del terrorismo.

2.– Actuaciones para el apoyo a las víctimas de vulneraciones de derechos humanos en el contexto de la violencia de motivación política.

3.– Programas que fomenten la unión entre víctimas y sociedad, así como la aportación de las víctimas a la construcción de la convivencia como partícipes de sus avances y progresos.

c) En materia de diversidad y solidaridad:

1.– Proyectos que promuevan los valores de la gestión positiva de la diversidad, la prevención del racismo, la xenofobia o los delitos de odio.

2.– Experiencias que promuevan los valores de solidaridad y la implicación social frente a las formas más críticas de desigualdad, discriminación, injusticia y exclusión o marginación.

3.– Acciones de solidaridad, implicación y movilidad social frente a las nuevas expresiones de violencia, la guerra y el terrorismo internacional.

El importe máximo que podrá percibir cada entidad beneficiaria por proyecto será de 25.000 euros.

## Igualdad, Justicia y Políticas Sociales

### **EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA EL DECRETO POR EL QUE SE CREA EL CENSO DE ORGANIZACIONES DEL TERCER SECTOR SOCIAL DE EUSKADI**

A instancias de Nerea Melgosa, consejera de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales, el Consejo de Gobierno ha dado hoy luz verde al decreto por el que se crea el Censo de Organizaciones del Tercer Sector Social de Euskadi.

La propia Ley 6/2016, de 12 de mayo, del Tercer Sector Social dicta que el Gobierno ha de crear y mantener actualizado un censo público de organizaciones del tercer sector social de Euskadi, siendo necesaria la inscripción para colaborar con las administraciones públicas vascas y acceder a las medidas de promoción que éstas impulsan, incluidos los programas subvencionables.

Este nuevo decreto, además de crear dicho censo, regula su funcionamiento estableciendo en particular, los procedimientos de inscripción, actualización y cancelación. Asimismo, se establece que dicho censo se coordinará con el Censo de Organizaciones del Voluntariado. En concreto, en el marco de tal coordinación se establece que aquellas entidades que queden inscritas en el Censo de Organizaciones del Tercer Sector social de Euskadi quedarán igualmente inscritas, sin necesidad de otro trámite, en el Censo de Organizaciones del Voluntariado.

El censo se ha concebido como un instrumento de utilidad para el conocimiento, publicidad, análisis, planificación, ordenación y promoción del Tercer Sector Social de Euskadi. Así mismo, se prevé la colaboración mutua del Censo de organizaciones del tercer sector social de Euskadi y el Observatorio Vasco del Tercer Sector Social, a efectos de tener conocimiento de la realidad social, en especial del número y composición de las organizaciones del tercer sector social existentes en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Para dicha inscripción la tramitación se realizará exclusivamente de manera electrónica en la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi a través de la web <https://www.euskadi.eus/servicios/10578>.

#### **Seis meses de margen**

El decreto establece la inscripción en el censo se exigirá en las convocatorias de subvenciones que las administraciones públicas vascas realicen, a partir de los seis meses siguientes a la entrada en vigor del presente decreto.

## Cultura y Política Lingüística

### EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA LA CONVOCATORIA DE LOS PREMIOS GURE ARTEA 2023

Los premios Gure Artea se conceden anualmente con el objetivo de fomentar las artes plásticas y visuales y suponen un reconocimiento a la contribución de los y las artistas al arte contemporáneo vasco y a la cultura vasca. Por un lado, se premia a las y los creadores, tanto por su trayectoria profesional como por la actividad creativa desarrollada en los últimos años, y por otro, se premia a otros agentes por su actividad general o concreta en el ámbito de las artes plásticas y visuales. Los premios Gure Artea se dividen en tres modalidades:

- **Premio reconocimiento a la trayectoria artística**: reconoce al o la artista que ha destacado por su labor creativa y por su aportación a la cultura y arte contemporáneos considerando la totalidad de su obra y trayectoria. La persona que reciba el premio recibirá también 20.000 euros.
- **Premio reconocimiento a la actividad creativa**: reconoce al o la artista o al colectivo de artistas que destaquen por su actividad artística y creativa y contribución a la creación contemporánea durante los últimos años. En esta modalidad también se ha incrementado la dotación económica y la persona premiada recibirá 20.000 euros, 2.000 euros más que en ediciones anteriores.
- **Premio reconocimiento a la actividad realizada por los diferentes agentes en el ámbito de las artes plásticas y visuales**: reconoce a aquellas personas que destaquen por su aportación a las artes plásticas y visuales de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el desarrollo de actividades de fomento de las mismas en todas o en alguna de las fases de la cadena de valor de la cultura: investigación, formación, creación-producción, promoción-difusión y distribución. Se podrá considerar tanto la totalidad de la trayectoria, como programas o proyectos concretos realizados durante los últimos años. La persona premiada recibirá 20.000 euros, 2.000 euros más que en ediciones anteriores.

El jurado de los premios deberá presentar las candidaturas a los premios de cada modalidad. El jurado de los Premios Gure Artea 2023 estará compuesto por Aimar Arriola Olabarria, Iñaki Imaz Urruticoechea, Miren Vadillo Eguino, Nora Aurrekoetxea Etxebarria y Rakel Espaza Sanz. Este jurado decidirá para quién serán los premios Gure Artea de 2023. La entrega de premios tendrá lugar en otoño.

